

Nere erriko txistulariak

Txistulari.

Orain dala bi bat urte egin zion Andoain'go Erriko-Etxea'k (eta bere bitartez erri osoak, noski) bere txistulari nagusionari, Aizpurua ta Zuloaga'tar Ignazio'ri, omenaldi bat.

Gorazarre au ez zitzaion ereduzko gizon oneri bakarri egin. Naiz eta berak, bere 55 urteko txistularitzarekin omenaldi osoa ondo merezia izan, bere sendi osoari eskeñia izan zan. Gizon apal, ixil eta langille onek bai baitu bere jatorri berezia ere. Nik ezagutu ez nuan bere aita-zana. Aizpurua ta Erauzkin'dar Juan Bautista, erriko txistulari zala, erakutsi zion seme oneri txistua jotzen, eta 1910'ko San Martin egunean pasa zion Ignazio'ri bere txistua; onetzaz gañera, bere anai Jorje, tanborreroak, 50 urte ba ditu bere lan onetan berekin; Ignazio'ren lau semeak ere txistulariak dira, ta bere illoba batzuek ere bai; Ignazio'k erakutsiak noski.

Omenaldi au, beraz, berari ta bere Aizpurua sendiko txistulari guziei eskeñia izan zan.

Eta bai merezia, gañera!

Mutil-koskorretan gure txistulariak ziran, beste Euskal-Erri'ko erri guzietan bezela, festetako argi-soñuarekin erria esnatzen zutenak. Txistularien goiz-erestia entzuten genduanean, gure barrengo jai-gose guziak pixtutzen zitzaikigun, eta egun guzirako erne geratzen giñan. Txistulariekin ikasi genituan guk plazan, oraindik ume giñala, lenengo dantzak; eta txistu-dantzetan asi giñan: "faborez?" edo "mesedez?" eskatzen, beste dantza elduetako asmorik ere ez genduanerako. Gero txistu-soñuarekin ibili oi giñan aspaldiko ostegun-gizeneko gure dantza-soketan, Kanto'i'ko ta Laxarte'neko ta Fonda'ko ardo zuri ta galletatxoak artzeko irrikiz; eta txistu soñu goxo ura entzuten genduan Sorabilla ta inguruko Allurralde ta beste Oriá aruntzeko baserrietan setiembreko Amabirjiñ jaietan taldeak ollaxko billa zebiltzanean; eta soñu poxgarri ura entzuten genduan Goiburu'ko festetara malda gora goazela; ta txistu soñu onekin berarekin asi giñan gure dantzari-txiki dantzak ikasten, aurrena on Luziano Pastor Añibarro'ren "Trianon" etxean, eta gero Bastero'ko antzestokian; txistu goxo onen soñuarekin pixtu genituan Etxeberrieta, Zumea, Bastero ta Kaletxiki'n gure San Juan suak, eta, azkenik, txistu soñu eztitzu onekin egin genituan gure iskutuko, ta batere malizi gabeko, gure lenengo andregaitxoak.

Nola, ba da, gure txistu soñu au aztu!

Gañera, gure eguna etortzen zanean eta jai nagusienetan, nere aita Pello kontsejala zala, or genituan txistulariak eskatzean txistu soñu goxo ura jotzen, eta laixter giñan gure amari txistularientzat bi peztako bat eskatzen.

Orduan ez genekin txistu soñu ori ez zala bakarrik, bere gixa, sortzen zan ezta.

Orduan ez giñan orretzaz geiegi kezkatzen; ez baizan ura gure buruak kezkatzeko adiña; zettorrena zuzen, gauzak orrela berez etorriko ba lira bezela, artzeko ediña baizik. Bañan arrezkero bizibidean orrenbeste bide egin ditugunok orduko izatearen sustraiak

ezagutzeko ta neurritzeko argiak etorri zaizkigu, ta orduan gure izakera dan bezela moldatzen lagundu zigutenak gogoratzeko garaia etorri da; gero, gure ondoren datoztenak, guk ematen ari geran barrengo sakontasuna, ta biziaren elburua, emendik urte batzuetara kontuan eukiko diguten bezela, gu orduan neurtuko gaituen bezela.

Orain Caracas'eko nere lan'gelan orduko gure txistularien oroipena ekartzen pixka bat alegintzen naizenean, an ikusten ditut nere ume garaiko Iñaxio Aizpurua, ta Anjel Urrutia ("Marruxkino" g.b., ta Jorje Aizpurua, Etxeberrieta'tik (Algodonera'ko ate aurretik urtetzen ziran) abiatu ta gu bizi giñan tranbeko zentralaren aurretik barrena, Bastero'tik ziar, ta Goiko-Plaza ta Kaletxiki bidean, eten gabe, txistua joaz.

Errelojua bezela ziran gizon aiek; naiz euria edo elurra egin, naiz eta eguzkiak berotu, gizon oiek meza-nagusia aurretik an joango ziran gure erriko soiñurik jatorrena joaz, beren aurretik eunka urtetan gure jatorriko gizonak egin oi zuten bezelaxe, gure izatearen berezitasun eder au galdu ez zedin, erriari bere egin-bearra gogoratu.

Iru txistulari-tanborreroak ziran ixillak. Bear ba da, Iñaxio izango zan geien; ixillen, alegia. Ba zuten orduan (eta ni gogoratzen naizen artean beintzat) Iñaxio'ren begi aiek alako argi apal berezi bat, santu-bideko pox-trixtura bat; eta bere aoan ba zan alako irri-partxo apal bat, beti beste zerbait ere ikusten ba lego bezela. Alaxe zan, izan ere, apala ta ixilla, nik buruan gorde detan arpegi ura. Jorje ere ixilla zan; bañan bere anaiak mistiku aidea zuan bezela, onek jan-edan ederreko soiñ-arpegi borobillak, osasuntzuak, zitun orduan; ala izan ditzala orain ere. "Marruxkino" berriz, ni gaztea nintzenerako zarra zan, gorputz motza eta argala, baita ximurra ere, ta begiak biziak eta alaiak. Irurak ziran gizon onak, eta beren egin-bearretan zintzoak, eta beren eguneroko zer-egiñetan langilleak.

Gure erriko soñu-jatsalleak ba du, gero, alako gizontasun ta dotoretasun egoki bat.

Orrenbeste zor diet nik, bai, mutil-koskor garai aretan eman zizkidaten poxengatik, eman zidaten ikasbidearengatik, erakutsi zizkidaten oiturengatik, nere aurrekoen oitura eder au galdu gabe pasa zidatelako, betiko nere biotzean txistu soñuaren garbitasuna eta poxtasun zoragarri au sentitzen erakutsi zidatelako.

Bijoakie emendik, dauden tokietaraño (zeruan dagon Anjel "Marruxkino"ri ere bai) nere esker ona ta nere maitasuna.